

KRITIKA SAIL OFIZIALA

Estibalitz Ezkerra



Bob Crane aktorearen istorio bitxia kontatzen du Schraderrek *Auto focus*-en.

Egun zoriontsuen amaiera

Auto focus

Zuzendaria: Paul Schrader.
Gidoia: Michael Gerbosi.
Argazkia: Fred Murphy.
Aktoreak: Greg Kinnear, Willem Dafoe, Rita Wilson, Maria Bello, Ron Leibman.
Herrialdea: AEB.

Historias minimas

Zuzendaria: Carlos Sorin.
Gidoia: Pablo Solariz.
Argazkia: Hugo Colace.
Aktoreak: Javier Lombardo, Antonio Benedictis, Javiera Bravo, Anibal Maldonado.
Herrialdea: Argentina-Espainia.

Mundu guztiarentzat pertsona eredugarria da Bob Crane. Haren jatortasuna gaindituko duenik ez dago munduan. Gainera, edozein gizonek nahiko lukeen guztia dauka berak: emazte *perfektua* —otzana, langilea eta etxekoia—, biziki miresten duten seme-alabak, hesi zuridun etxea, programa arrakastatsua irratian... Eszena horiekin *Happy days* telesaileko urte gogoangarriak etortzen zaizkigu gogora. Sniff. Baina Bob Crane ez dago pozik. Aktore famatu bihurtu nahi du, izar handien antzera autografoak sinatu. Apaizak kontuz ibiltzeko esango dio, ez du komunitateko gizonik zintzoena galdu nahi. Infernuak hamaika aurpegi ditu, eta horietarik gaiztoena zeluloidetzkoa da. Bob Craneren degradazioa, ordea, alde aurretik idatzita zegoen. Emazteak garajea aurkitu dizkion aldizkari pornoak Bob Cranengan gerta-

tuko den metamorfosiaren aurrekari xume bat besterik ez dira. Zeren Bob Crane sexua besterik ez du buruan, eta John Carpenter-Willem Dafoe eroaren eskutik itzulerarik gabeko bidaia lizunean murgilduko da. Baina 70eko hamarkadako Estatu Batuetan bizi da Bob Crane —kristal zabaleko betaurreko beltzak, urrezko katea paparrean eta alkondara hortarak—, eta goiz edo berandu halako gehiegikeriak ordaindu egiten dira. Bob Crane ez du infernutik salbatuko duen Charlie zaindaririk. *Happy days* haiek *Sad days* bilakatuko dira. *Auto focus* ikusi ostean gure *happy days*-ak ere *sad days* bihurtu ditu Schra-

derrek. *Sad days* berarengandik halako filmik ez genuelako espero, *sad days* estatubatuarren gustu txarrak mugarik ez duela erakutsi digulako.

Istorio txikiak

Patagoniara itzuli da Carlos Sorin. Lur idor eta zigortu horietan antzinako Argentinaren espirituak bizirik jarraitzen duela dio berak. Horren lekuko dira *Historias minimas*-eko hiru protagonistak: telebistako lehiaketa batera doan Maria lotsatia, alar-gun baten atzetik dabilen Roberto saltzailea, bere txakurraren bila abiatuko den Don Justo. Azkena kenduta, lehenengo biak aktore lanetan esperientzia bakoak dira, eta horrek freskotasan handia eman dio filmari. Jaioterriak eta helmugak lotzen dituzte hiru pertsonaiak: Fitz Roykoak dira eta betebeharrak Puerto San Julianera eramango dituzte. Beren biografia pertsonalek kasik ez dute ezer esaten, baina, aldi berean, zenbat gauza ez ote dituzten iradokitzen. Galtzeko bidean diren inozentzia eta asmo onak, adibidez. Ez dira hitz potoloak behar gauza handiak kontatzeko. Hori jakin bagenekien eta Sorinek berriro frogatu du. Alde horretatik, basamortuan botatako oihua da Carlos Sorinen filma. Oihua, salaketa-tik asko baitu *Historias minimas*-ek; basamortuan botatakoa filmeko kritikak horretan gertzen direlako, kritika hutsean. Dena den, eskertzekoa da bere ahalegina.

'FLASH'-A

Axolagabezia

Paul Schraderren filma hitz bakar batekin deskribatu beharko bagenu, horixe erabiliko genuke: axolagabezia. *Auto focus*-ek eszena bero ugari bazituen ere, ikusleek hoztasunez hartu zuten lana —txalorik jaso ez duen film bakarra—, eta ez da harritzekoa. Filmetik gauza bakarra nabarmenduko genuke: Greg Kinnearren antzezpena. Irribarre perfektuko mutil eder eta atseginen roletara ohituta gintuen aktoreak benetako nazka sentiarazi zigun Bob Crane horrekin. Hortxe amaitzen da kontua.

EGITARAUA 27

SAIL OFIZIALA

KURSAAL, 1	09:00	OCTAVIA	Zuz.: Basilio Martin Patino (Espainia)
KURSAAL, 1	12:00	PIGS WILL FLY	Zuz.: Eoin Moore (Alemania)
PRINCIPE, 2	12:00	PIGS WILL FLY	Zuz.: Eoin Moore (Alemania). Kazetarientsat soilik
ASTORIA, 3	16:00	AUTO FOCUS	Zuz.: Paul Schrader (AEB)
ASTORIA, 3	18:30	HISTORIAS MINIMAS	Zuz.: Carlos Sorin (Argentina-Espainia)
KURSAAL, 1	18:30	PIGS WILL FLY	Zuz.: Eoin Moore (Alemania)
ANTZOKI ZAHARRA	19:30	DÉCALAGE HORAIRE	Zuz.: Daniele Thompson (Frantzia). Kazetarientsat soilik
ASTORIA, 3	20:30	AUTO FOCUS	Zuz.: Paul Schrader (AEB)
KURSAAL, 1	21:30	OCTAVIA	Zuz.: Basilio Martin Patino (Espainia)
ASTORIA, 1	23:00	PIGS WILL FLY	Zuz.: Eoin Moore (Alemania)

ZABALTEGI

KURSAAL, 2	09:30*	HUKKLE	Zuz.: Gyorgy Palfi (Hungaria)
ANTZOKI ZAHARRA	10:00	LOST IN LA MANCHA	Zuz.: Keith Fulton, Louis Pepe (Espainia-Erresuma Batua). Kazetarientsat soilik
KURSAAL, 2	12:00*	MINÄ JA MORRISON (ME AND MORRISON)	Zuz.: Lenka Hellstedt (Finlandia)
PRINCIPE, 2	16:00**	UNE PART DU CIEL	Zuz.: Benedicte Lienard (Frantzia-Belgika-Luxenburgo)
WARNER, 10	16:00*	PARAISO B	Zuz.: Nicolas Acuña (Txile)
ASTORIA, 1	16:00*	REAL WOMEN HAVE CURVES	Zuz.: Patricia Cardoso (AEB)
ANTZOKI ZAHARRA	16:00**	8 FEMMES	Zuz.: François Ozon (Frantzia). Kazetarientsat soilik
KURSAAL, 2	16:30	LOST IN LA MANCHA	Zuz.: Keith Fulton, Louis Pepe (Espainia-Erresuma Batua)
ASTORIA, 1	18:00**	CIDADE DE DEUS	Zuz.: Fernando Meirelles, Katia Lund (Brasil)
PRINCIPE, 2	18:30*	SCHERBENTANZ	Zuz.: Chris Kraus (Alemania)
WARNER, 10	18:30**	IRREVERSIBLE	Zuz.: Gaspar Noé (Frantzia)
KURSAAL, 2	19:00*	EL TRAJE	Zuz.: Alberto Rodriguez (Espainia)
WARNER, 10	20:30**	UNE PART DU CIEL	Zuz.: Benedicte Lienard (Frantzia-Belgika-Luxenburgo)
PRINCIPE, 2	20:30*	BABY	Zuz.: Philipp Stolz (Alemania)
ASTORIA, 1	21:00*	PARAISO B	Zuz.: Nicolas Acuña (Txile)
KURSAAL, 2	21:30**	BOWLING FOR COLUMBINE	Zuz.: Michael Moore (Kanada-AEB)
ANTZOKI ZAHARRA	22:00*	MINÄ JA MORRISON (ME AND MORRISON)	Zuz.: Lenka Hellstedt (Finlandia). Kazetarientsat soilik
PRINCIPE, 6	22:00*	MINÄ JA MORRISON (ME AND MORRISON)	Zuz.: Lenka Hellstedt (Finlandia). Kazetarientsat soilik
ASTORIA, 3	23:00**	THE PIANIST	Zuz.: Roman Polanski (Frantzia-Polonia-Alemania-Erresuma Batua)
WARNER, 10	23:00*	HUKKLE	Zuz.: Gyorgy Palfi (Hungaria)
PRINCIPE, 2	23:00*	REAL WOMEN HAVE CURVES	Zuz.: Patricia Cardoso (AEB)
ANTZOKI ZAHARRA	00:00*	EL TRAJE	Zuz.: Alberto Rodriguez (Espainia). Kazetarientsat soilik
KURSAAL, 2	00:00**	8 FEMMES	Zuz.: François Ozon (Frantzia)

MICHAEL POWELL

ASTORIA, 5	16:00	THE BATTLE OF THE RIVER PLATE	Zuz.: Michael Powell, Emeric Pressburger (1956)
PRINCIPE, 3	16:00	THE QUEEN'S GUARDS	Zuz.: Michael Powell (1961)
ASTORIA, 5	18:30	ILL MET BY MOONLIGHT	Zuz.: Michael Powell, Emeric Pressburger (1957)
PRINCIPE, 3	18:30	BLUEBEARD'S CASTLE/HERZOG BLAUBARTS BURG	Zuz.: Michael Powell (1964).
PRINCIPE, 3	19:45	THEY'RE A WEIRD MOB	Zuz.: Michael Powell (1966)
ASTORIA, 5	20:30	LUNA DE MIEL/HONEYMOON	Zuz.: Michael Powell (1959)
PRINCIPE, 3	22:15	AGE OF CONSENT	Zuz.: Michael Powell (1969)
ASTORIA, 6	22:45	PEEPING TOM	Zuz.: Michael Powell (1960)
PRINCIPE, 5	22:45	THE RED SHOES	Zuz.: Michael Powell, Emeric Pressburger (1948)

50EKO 50AK

PRINCIPE, 1	17:00	DAS KALTE HERZ	Zuz.: Paul Verhoeven (Alemania, 1950)
ASTORIA, 2	17:30	UN CONDAMNÉ À MORT S'EST ÉCHAPPE	Zuz.: Robert Bresson (Frantzia, 1956)
ASTORIA, 4	17:30	LOS OLVIDADOS	Zuz.: Luis Buñuel (Mexiko, 1950)
WARNER, 8	17:30	RIO, 40 GRAUS	Zuz.: Nelson Pereira dos Santos (Brasil, 1955)
ASTORIA, 4	19:30	THE LEAGUE OF GENTLEMEN	Zuz.: Basil Dearden (Erresuma Batua, 1959)
PRINCIPE, 1	19:30	SMULTRONSTÄLLET	Zuz.: Ingmar Bergman (Suedia, 1957)
PRINCIPE, 5	19:30	LE NOTTI DI CABIRIA	Zuz.: Federico Fellini (Italia-Frantzia, 1957)
WARNER, 8	20:00	PECCATO CHE SIA UNA CANAGLIA	Zuz.: Alessandro Blasetti (Italia, 1955)
PRINCIPE, 4	20:30	THE BAD AND THE BEAUTIFUL	Zuz.: Vincente Minnelli (AEB, 1952)
ASTORIA, 4	22:30	VERTIGO	Zuz.: Alfred Hitchcock (AEB, 1958)
WARNER, 8	22:30	FROM HERE TO ETERNITY	Zuz.: Fred Zinnemann (AEB, 1953)
PRINCIPE, 1	22:30	THE DAY THE EARTH STOOD STILL	Zuz.: Robert Wise (AEB, 1951)
ASTORIA, 5	22:45	INVASION OF THE BODY SNATCHERS	Zuz.: Don Siegel (AEB, 1956)

VOLKER SCHLONDORFF EZAGUTU

ASTORIA, 7	16:00	BILLY, HOW DID YOU DO IT?/BILLY WILDER, WIE HABEN SIE'S GEMACHT? (TB)	Zuz.: Volker Schlöndorff, Gisela Grischow (Alemania, 1988-1992)
ASTORIA, 7	19:30	THE MICHAEL NYMAN SONGBOOK (TB)	Zuz.: Volker Schlöndorff (Alemania, 1992)
ASTORIA, 7	22:30	EIN PRODUZENT HAT SEELE ODER ER HAT KEINE	Zuz.: Volker Schlöndorff (Alemania, 2002)

FRANCIS FORD COPPOLARI OMENALDIA

ASTORIA, 6	16:30	THE RAIN PEOPLE	Zuz.: Francis Ford Coppola (AEB, 1969)
PRINCIPE, 5	16:30	THE COTTON CLUB	Zuz.: Francis Ford Coppola (AEB, 1984)
ASTORIA, 6	19:30	THE CONVERSATION	Zuz.: Francis Ford Coppola (AEB, 1974)

MADE IN SPANISH '02

PRINCIPE, 6	16:30	EXXORCISMOS	Zuz.: Jaime Humberto Hermosillo (Mexiko, 2002)
PRINCIPE, 4	16:30***	WASHINGTON HEIGHTS (AY AMOR)	Zuz.: Alfredo de Villa (AEB, 2002)
PRINCIPE, 4	18:30	GUERREROS	Zuz.: Daniel Calparsoro (Espainia, 2002)
ASTORIA, 2	19:30***	O INVASOR	Zuz.: Beto Brant (Brasil, 2001)
PRINCIPE, 6	19:30	EN EL TIEMPO DE LAS MARIPOSAS	Zuz.: Mariano Barroso (AEB, 2002)
ASTORIA, 2	22:30	PIEDRAS	Zuz.: Ramón Salazar (Espainia, 2002)
PRINCIPE, 4	22:45***	RAISING VICTOR VARGAS	Zuz.: Peter Sollet (AEB, 2002)

BELODROMO

BELODROMOA	19:00	SEN TO CHIHIRO NO KAMIKAKUSHI	Zuz.: Hayao Miyazaki (Japonia)
------------	-------	-------------------------------	--------------------------------

ZINERIK HANDIENA TXIKIENTZAT

BELODROMOA	10:00	SPY KIDS	Zuz.: Robert Rodriguez (AEB)
------------	-------	----------	------------------------------

* Zuzendari berrien sarirako lehian da. ** Ikusleen sarirako lehian da. *** Made in Spanish sarirako lehian da.